

BILBOKO ALKATEAK INAUGURATU DU BILBAO ARTEK 2019AN BEKATU DITUEN ARTISTEN ERAKUSKETA

- **Bilboko Udalaren arte-produkzioaren zentroak erakusketa kolektibo honen bidez amaituko du urtea, 23 artistaren eta arte-kolektibo baten lanekin.**
- **Inaugurazioaren ondoko astean zehar, topaketak egingo dira artistekin, proposamenetan sakondu dezaten.**
- **Arte plastikoen alorreko profesionalen epaimahai batek zazpi proposamen hautatuko ditu, 2020an bakarkako erakusketa bat egin dezaten.**

(Bilbon, 2019ko abenduaren 5ean). Juan Mari Aburto Bilboko alkateak Bilbao Arte fundazioaren ate irekien urteko erakusketa inauguratu du, 2019an beka jaso duten artisten lanekin. Arte-ekoizpeneko zentzoko aretoek aurten 24 proposamen edukiko dituzte, hainbat adin eta jatorritako artista garaikideek landutakoak. Gaur Bizkaiko galeristen aurrean eta zentzoko artistekin inauguratu ondoren, 19:00etan irekierako jaia ospatuko da. Erakusketa asteleheneetik barikura ikusi ahalko da 17:30etik 20:30era, abenduaren 9tik aurrera (astelehena) abenduaren 17ra arte (martitzena).

Erakusketa kolektibo honetan parte hartuko duten 23 artistak eta kolektibo artistikoa hauek dira: Javier Arbizu, Esther Camacho Cerezo, Alejandría Cinque, Moriah De Zen, Lucía Díaz, Sergio D Loeda, Helena Goñi, Heather Kaplow, Liane Lang, Miguel Leiro, Daniel Llaría, Cachorro Lozano, Gerónimo Manzueta, Miguel Marina Cobo, Adrián Mena Paredes, Antonio Menchen, Saioa Olmo Alonso, Damaris Pan, Dante Litvak eta Fabro Tranchida (*Los Picoletos*), Milena Rossignoli, Aristide Stornelli, Marina Suárez Ortiz De Zárate, Irati Urrestarazu eta Marta Van Tartwijk.

Inaugurazioan zehar, Bilboko alkateak parte hartzaileak zoriondu ditu eta gure asmoa gogora ekarri du: Bilbo “kulturan eta artean hiri aitzindaria izan dadila, baita jakintzaren, prestakuntzaren eta berrikuntzaren hiria izatea ere”. Aburtok bekatutako artisten lanen kalitatea azpimarratu du eta gogora ekarri du “Bilbao Artek oso paper garrantzitsua jokatzeko duela erreferentziako arte-ekoizpeneko zentro gisa, eta ez bakarrik Euskadin”. “Nazioarteko erreferentzia gara eta hala izaten jarraitu gura dugu”, esan du amaitzeko.

Erakusketaz gain, abenduaren 9tik 13ra arteko astean artistak eta beraien proiektuak ezagutzera emango ditugu, proposamen bakoitza sakontasunez aurkeztuz. Eguazteneko, egueneko eta barikuko topaketen ostean, 19:30ean, gutxi gorabehera, bi ekintza performatibo eta kontzertu bat egingo dira, Bilbao Artek artistek antolatutakoak. Abenduaren 13an, barikua, ospakizun berezi bat egingo da, 2020. urteko banako erakusketak hautatzen dituen epaimahaiaren erabakia publikoki jakitera emateko.

Juan Zapater Fundazioko zuzendariak dioenez, “2019 urte berezia izan da; kontsolidazioaren eta proiektuaren urtea izan da. Batetik, argi dago, 20 urte baino gehiago funtzionatzen eman ondoren, Bilbao Arte fundazioak ondo finkatutako eta aitortutako ibilbide bat eskaintzen duela. Bestetik, egin den guztiaren erantzukizunaren

ondorioz, eta gero eta eskaera eta onarpen handiagoak daudenez gero, datozen hilabeteetan hurrengo urteetako etorkizunerako oinarriak proiektatu beharko dira. Fundazioaren hazkundera ezinbestekoa da gaur, eta laster gertatuko da”.

Arte-ekoizpeneko zentro honek, urte osoan, 100 erabiltzailetik gora izan du tailerretan, 22 artista saritu ditu ekoizpenerako laguntzekin, eta 25 artista bekatu ditu ikasteko egonaldiekin. Mugikortasun-programak sustatu ditu hainbat zentrotan: SeMa Nanji museoa (Hego Korea), La Cité Internationale des Arts de Paris (Frantzia) edo Amna Suraka (Iraken mendeko Kurdistan), Moving Artists-en bitartez, Euskal Herrian bizi diren artistentzako nazioarteko arte-egonaldiak eskainiz. Bilbao Artek nazioarteko eta estatuko aldi baterako egonaldiak ere hartu ditu zenbait programari esker: SeMA Nanji Residency (Hego Korea), Viana-Cajasur fundazioaren beka (Kordoba) eta Irudikaren ilustrazioko arte-egonaldiak (Euskal Herria).

Haren jardueren artean, hauek aipatu behar ditugu: 20 erakusketa eta ikasketa irekien jardunaldi; ikus-entzunezko 450 pieza baino gehiago proiektatzea (zinema nahiz dokumentala) 13 ziklo tematikotan eta bost jaialditan; 50 hitzalditik gora hainbat gairi buruz: zinema, ilustrazioa, argazkigintza, arropa-diseinua eta moda, komikia eta literatura, pintura, eskultura edo arte grafikoak; 20 jarduera-programa zinema dokumentalaz, ilustrazioaz, grabatuaz, fotograbatuaz, argazkigintzaz, eskulturaz, sorkuntza digitalaz, litografiaz, artearen kontserbazioaz, mappingaz eta literaturaz; sei kontzertu eta hiru performance; eta Francisco Javier San Martínen “Guía para el Arte del Siglo XXI” liburuaren argitalpena, Bilbao Arten 2018ko hasieran emandako mintegian oinarrituta, artistaren zazpi liburu eta 20 liburuxka eta kartel argitaratzeaz gain.

EL ALCALDE DE BILBAO PRESIDE LA INAUGURACIÓN DE LA EXPOSICIÓN DE ARTISTAS BECADOS POR BILBAO ARTE EN 2019

- El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao despide el año con esta exposición colectiva de celebración anual que reúne la obra de 23 artistas y un colectivo artístico.
- Durante la semana siguiente a la inauguración se celebrarán encuentros con los artistas que ahondarán en sus propuestas.
- Un jurado de profesionales del ámbito de las artes plásticas elegirá las siete propuestas merecedoras de una exposición en solitario en 2020.

(Bilbao, 5 de diciembre de 2019). El Alcalde de Bilbao Juan Mari Aburto ha presidido la inauguración de la exposición anual de Puertas Abiertas de la Fundación BilbaoArte con la obra de las y los artistas becados en 2019. Las salas del centro de producción de arte albergarán este año 24 propuestas de artistas contemporáneos de diversas edades y procedencias. Tras su inauguración hoy ante galeristas de Bizkaia y artistas del centro, se celebrará una fiesta de apertura a las 19:00 horas. La exposición podrá verse de lunes a viernes entre las 17:30 y las 20:30 a partir del lunes 9 de diciembre y hasta el martes 17 de diciembre.

Los 23 artistas y el colectivo artístico que participa en esta muestra colectiva son Javier Arbizu, Esther Camacho Cerezo, Alejandría Cinque, Moriah De Zen, Lucía Díaz, Sergio D Loeda, Helena Goñi, Heather Kaplow, Liane Lang, Miguel Leiro, Daniel Llaría, Cachorro Lozano, Gerónimo Manzueta, Miguel Marina Cobo, Adrián Mena Paredes, Antonio Menchen, Saioa Olmo Alonso, Damaris Pan, Dante Litvak y Fabro Tranchida (*Los Picoletos*), Milena Rossignoli, Aristide Stornelli, Marina Suárez Ortiz De Zárate, Irati Urrestarazu y Marta Van Tartwijk.

Durante la inauguración, el Alcalde de Bilbao ha dado la enhorabuena a las y los participantes y ha recordado que queremos que Bilbao sea una *“ciudad tractora de la cultura y el arte y también queremos que sea reconocida como ciudad del conocimiento, de la formación, de la innovación”*. Aburto ha destacado la calidad de las obras de las y los artistas becados y ha recordado que *“Bilbao Arte juega un papel importante como centro de producción artística de referencia, no solo en Euskadi”, “somos y queremos seguir siendo referente a nivel internacional”*, ha concluido.

Además de la exposición, la semana del 9 al 13 de diciembre estará enteramente dedicada a conocer a los artistas y sus proyectos con la presentación en profundidad de cada propuesta. Tras los encuentros del miércoles, jueves y viernes, hacia las 19:30 horas, se celebrarán dos acciones performativas y un concierto organizados por artistas de BilbaoArte. El viernes 13 de diciembre se realizará una celebración especial en el que se anunciará públicamente la deliberación del jurado que selecciona las exposiciones individuales del año 2020.

En palabras de Juan Zapater, Director de la Fundación, *“2019 ha sido un año especial, un año de consolidación y de proyección. De un lado es evidente que tras más de 20 años de funcionamiento, la Fundación Bilbao Arte ofrece un recorrido firmemente asentado y reconocido. Del otro, la responsabilidad de haber hecho todo lo que se ha hecho y la creciente demanda y aceptación, imponen que en los próximos meses se proyecte las bases para el futuro de los próximos años. El crecimiento de la Fundación hoy es una necesidad y ya un hecho cercano”*.

El centro de producción artística cierra el año con más de 100 usuarios de los talleres, 22 artistas premiados con ayudas a la producción y los 25 artistas becados con residencias con estudio. Ha promovido programas de movilidad con centros como el museo SeMa Nanji (Corea del Sur), la Cité Internationale des Arts de París (Francia) o Amna Suraka (Kurdistán Iraquí) a través de Moving Artists, que han resultado en la formalización de residencias artísticas internacionales para artistas residentes en el País Vasco. BilbaoArte también ha acogido residencias temporales de carácter internacional y nacional gracias a programas como SeMA Nanji Residency (Corea del Sur), las Becas Fundación Viana-Cajasur (Córdoba) y las residencias artísticas de ilustración de Irudika (País Vasco).

Entre sus actividades cabe destacar: la materialización de 20 exposiciones y jornadas de estudios abiertos; la proyección de más de 450 piezas audiovisuales (tanto cine, como documental) en 13 ciclos temáticos y cinco festivales; más de 50 conferencias y charlas sobre temas como el cine, la ilustración, la fotografía, el diseño textil y la moda, el cómic y la literatura, la pintura, la escultura o las artes gráficas; 20 programas de actividades sobre cine documental, ilustración, grabado, fotograbado, fotografía, escultura, creación digital, litografía, conservación de arte, mapping y literatura; seis conciertos y tres performances; y la publicación del libro “Guía para el Arte del Siglo XXI” de Francisco Javier San Martín a partir del seminario impartido en BilbaoArte a principios de 2018, además de siete libros de artista y cerca de 20 folletos y carteles.